

## **PREDIKUAK erro, XIX. MENDEA**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:  
Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.  
Bertsio informatiko honen egilea:  
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego  
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,  
nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **PREDIKUAK erro, XIX. MENDEA**

I

Cepique Moyses explanare legem, et dicere. Deut. 1.

Escritura sanduaren lemissico capituloan erraten digu Jaungoicoac, Moises haviatucela  
legue sanduaren explicacen demboragartaco genderi erraten ciotela, aizacie dotrinagau  
cuidado eta atencio andiarequin beidazacie erratenciole legue sandugau dela zuen  
iaquintasun gperia eta doctrinagonequin beartuciela, pasatu eta garaitu bentaja andiarequin  
munduontaco berce gende guiac: Haec est vestra sapientia, et intellectus coram populis:  
Atendizacie erratenciole Moisesec, bada icasten baucie Jaungoico sanduaren legue  
sandugau, ereje guciec admiracio andiarequin erranendute zuengatic, cer gende dire evec?  
gende batzuc ain iaquinsunac, ain aituc, eta ain andiac? cinez gende andiac nere, Gende  
onac, Jaungoicoaren leguea daquitenac eta leguearen arabera obracen dutenac: Nic ere  
nainuque bada egun habiatu explicacen pißcabat legue sanduontaic, Moisses bezala, ez  
ainberce izpiritua, eta iaquintasunequin nola Moises, baiña bai ainberce deseoequin, ero  
gueiagoequin aprovecha dezanagatic zuen baitan cerbait: badaquit legue sandugonequin  
munduko legueac, ero munduac artuituenac eztirela ongui etorrico, eta gaizqui  
atraconaizcela nere contuetan, baiña alare eztezaquet cerbait errateco utci, bearbada norbait  
aprovechatuco da:

Baiña erranicien lemissian legue sandugonequin etcirela ongi etorrico munduontaco legueac cergatic dembora evetaco christauec urte gucion beressi barinbadute dembora pißcabat beren diversiotaco, negociotaco, escesotaco eta maldadetaco, da Abenduko dembora pißcagau, gucion da beilla, gucion da esceso, eta gucion da maldadea; ez tut bada erranai nic eztaiteila divertitu, baisic diberti daiteila honestoqui, eta Jaungoicoac manacen duen bezala, becaturic, eta escesotic guardacen direla, beren debocioequin, eta obligacioequin cumplicen dutela, prevenicen direla confesio onbatequin jesuChristo gure erredentorearen errecibiceco, bada au ongi eguiten badugu cumplituco dugu Jaungoicoaren legue sanduarequin, erdechico dugu munduontaco gracia, eta bercean gloria.

Misus est Angelus Gabriel ad Virginem desponsatam joseph. Luc. 1

Egun celebracendu gure Eliza Ama sanduac gure erreligionearen, ero legue sanduaren misterioric andienetaic bat, gure erreligionearen, ero legue sanduaren obraric andienetaic, eta sanduenetaic bat; Misteriogau, ero obragau ceiñ andia eta sandua den oficialec eta materialec berec eracusten digute; Oficialec dugu Jaungoico Aita eternua, bere semea, eta Yspiritu sandua, Materialea dugu Maria santissima considerazagun bada orai nere Gende onac, cer obra den au: egun celebracen dugu bada Maria Santissimac Jaungoico ayta eternuaren seme bacarra concebitu zuen eguna, Sn. Lucasen erratendigun bezala lemissico capituloan, Misus est Angelus Gabriel etc. Biali ciotela Ayguiru Sn. Gabriel mandatuarequin, ero embajadarequin erran cezola Maria Santissimari Jaungoicoaren partetic nola concebituco zuen seme bat Yzpiritu sanduaren obraz. libratuco zuela, eta Ycena emainciola Jesus: Yrur gauza eguincituen Jaungoicoac andiac eta admiragarriac, ceiñtan eracuxi baicion munduari bere iaquintasuna eta bere poderea; lemisicoa eguina cituen Ceruac bere asentutaco, eta descansutaco Anguiruec eta justoec icusten eta beidacen diotela; bigarrena eguinzu Mundugau, garcelabat, ero desterrubat bezala; eta Yrugarrenra egui zuen Maria Santissima bere seme bacarraren depositutaco, bedraci ilabetez depositacen cela andre gonen sabelean garcel batean bezala, eta azquenean beztiken cela guizonaren miseria eta trabaju guciez mundu tristegau erredimiceco: ¿cer Andre da bada au, nere Gende onac, ainberce fabore meressi izanduena, Jaungoicobat bere sabelean iduquiceco diña izandena? Ayngiru Sn. Gabriele erraten digu itz gutitan cer andre den au: ave Maria gracia plena: Maria gracias betea: dudaric eztago Jaun goicoaren Amac bearcituela izan virtue guciac, gracia guciac, eta doi guciac, becatuaren mancharic secula izan etzuela; ala erraten digu Sn. Caietano Cardenalac; Maria Santissima bere Ama Santa Anaren sabelean izancela santificatua Jaungoicoaren gracias eta privilejioz, eta gracia gura secula etzuela galdu; etzuque bada gutiago egui Jaungoicoac andregonequin, cergatic au autatu zuen, ero beressi zuen bere seme andiaren Amazat, eta alako semearen Amaren baitan aurquitu bearciren Jaungoicoaren gracia guciac goien goieneko puntuan, Jaungoicoaren privilegio eta favore guciac. Claro dago bada, nere Gende onac, Juangoicoac autacen badu, ero beresten badu presunabat oficio bateko ero estado bateko ementiola oficio artaco, ero estado artaco beartuen calidade eta circunstancia guciac; dignoqui eta bearden bezala cumpli dezan bere estadoarequin, ero oficioarequin; ¿norc dudatuco du bada Jaunjoicoac autatu zuenaz gerostic, ero beressi zuenaz guerostic andre gucion ertearen Maria Santissima bere seme andiarren Amazat emancitiola, ero beztitu zuela andregonen arima bere gracia, virtue eta privilejioequin goien goieneko punturaño? Ala bada andregonec izanzuen Patriarca guciac baiño fede gueiago; Profetec baiño iaquintasun gueiago: Apostoluec baiño cuidado hueiago: Martirec baiño paciencia gueiago: Confesorec baiño templanza gueiago: Virginec baiño inocencia eta humildade gueigo: Maria Santissimaren baitan aurquitu cen Abelen inocencia, Noen justicia, Abranen fede,

Ysaquen beldurtasuna, Jacoben perseverancia, Sn. Josepen honestidade, Moisesen mansotasuna, Josuen obediencia, Daviden humildadea, Salomonen iaquintasuna, Heliasen cuidadoa Jaungoicoaren honrraz, Ezequiasen negarrac, Job sanduarren pacienza, Tobiasen misericordia, Ysaiasen sufrimentua, eta Sn. Juan Bautistaren sandutasuna: Arma fuerte eta eder(ra) evequin Veztitu zuen bada Jaungoicoac andregau bere izate naturalaren lemissico instantetic, cergatic baicequin fite ero laster atra bear zuela batallaco campara, Lucifer serpiente zar gaisstoarri burua austera, eta abarricacera: Luciferrec iaquin zuen bezain laster Jaungoicoaren errevelacioz, Onceilla gaztebatec concebitu zuela bere entrañetan Yzpíritu sanduaren obraz Jaungoico eta guizon bat mundu gucian erremediacea elducena, bereala aviatucen conjuracen eta armacen Jesus aurraren, eta bere amaren contra, equencen citiotela viciac sorcenciren aur guciei, baldin Jaungoicoaren providenciaz eta avisus ezpace iiesi joan Maria santissima bere esposo Sn. Josequin: Ycusi cituen bai Jaungoicoac guizonaren miseriak, eta trabajuac, hure lemissico ama Evaren medioz etorriac Ezarri cituen Jaungoicoac Paraisuan Adan eta Eva pasea ceicela lecu eder artan, devecacen ciotela arbole bateco frutua bacarric ¡baiña cer guertatu cen! sartu cen Lucifer gaistogura, eta erran cion Evari, baldin iaten bazuen debecatuic ceukan arbolearen frututic Jaungoicoac bezanbat iaquinen zuela, eta cer egui zuen Evac, andrearena, beti bezala curiosac eta iaquin naiac, artuzuen debecatuic ceukan frututic ian zuen, eta ianaci cion bere senarrari, Adanei; eta ian zuten bezain laster guelditu ciren bulussiric, Jaungoicoaren gracia galduric berendaco, eta beren ondoreco guciendaco, guelditu ciren Luciferren esclavo, eta eriocearen sujeto ero menean berac, eta beren ondoreco guciak: Ycusi cituen bada Jaungoicoac guizon tristearen miseriak, eta trabajuac, eta lastimatumen bere idurira, eta semejanzara eguinicaco guizon tristeaz; Determinatu zuen bada Jaungoicoac guizonaren miseria eta trabaju guciak erremediacea, even gucion erremediaceco, obequi estimaguindezanagatic favore andigau, biali cigun mundura bere seme bacarra, guizon eguiten cela Maria santissimaren sabelean Aytaren, semearen, eta Yzpíritu sanduaren obraz, cerbizacen zuela materialetaco, ero Jesuchristoren gorputzaco Maria santissimaren entrañetaco odol piscabatec; au dábada, nere Gende onac, egungo misterio ero obra andigau, Jaungoicoaren semea guizon eguitea, eta mundura etorcea becatari gucion salbacera, Christus venit in mundum peccatores salvos facere: Jesuchristo etorri cela mundura becatari gucion salbacera. ¿Cembañ gracia, eta cembañ esquer eztiozu bada zor, nere Gende onac, Maria santissimari favore onengatic? ¿eta nola ezquinduque alegratu bear egungo misterio andiontz? Bada Andre batec galdu bazuen mundua, berce bat jaiocen mundu guciaren erredimizalea eman duena Eva tristeac galdu bazuen Jaungoicoaren gracia; Mariac bilatu cituen guciak; Eva tristeac ezarri baguin duza Luciferren esclavo; Mariac eman digu libertade osoa; Luciferrec engaiñatu bazuen Eva, Mariac abarricatuitiote buruac infernuco Lucifer guciei: Zori onean jaio onceilla ederra; dichosa, eta milla aldiz dichosa zara zu, bedeicatua andre gucion erteau; bedracitan egun urte bazuen, Eva tristearrec negar eguiten zuela bere becatuaz, beiñere beguiac etciceizquiola chucacen; Aytuzuelaic bada egungo misterioaren, ero obraren noticiagau nola alegratu eta consolatu bidecen Eva triste; ¿cenbat consoliqui, eta bozcarioi qui joan bidecen lasterca Maria santissimarengana graciak, esquerrac, eta enora buenain ematera; erratienciola, ay nere Onceilla gazte ederra, nere Ama zabala zuc zuc bilatuzu nic galdu nuen alaja preciosoa; zu izanzara bacarric digna andre gucion erteau nic eguintudan daiñu guciak erremediaceco: zure medioz bilatu dut galdu nuen gracia, eta zure medioz erdechico dut despreciatu nuen paraisa: itz evec, eta berce anitz alaco erraten citiou Eva tristeac Maria santissimari: ¿cergatic eztiozu bada gucion eta vicigaren egunetan consoluz, eta bozcarioz beteric milla gracia esquer, eta enora buena emanen andregoni eguiñ digun favoreaz? Cer eztugu aimberce parte, eta interes obra gontan nola Evac? Bai nere gende onac, gucion gatic concebitu zuen, eta guciengatic eman zuen mundura bere seme maitea:

¿ceiñ izainda Christaua iduquico eztiona Maria santissimari devociobat sandua bere avemarien, salven, eta letanien medioz? ceiñ izainda Christaua iduquico eztiona erreverenciabat eta errespetu bat andia? Bada Mariagau guelditucen munduontan, Evaren ordez gure Amataco, gure abogadataco, gure amparotaco, eta gure medianerataco: amagonen medioz beardugu erdechi munduontan gueren tristecetan consolua, trabajuetan paciencia, eta conformidadea, eritasunetan, eta naigabetan sufrientua, obra onetan perseverancia. Eva (...) can Ama sandugon (...) (Virginem) bear dugu erdechi Jesuchristo bere seme bacarraren gandic munduontaco gracia, eta berceco gloria: Quam mihi et vobis prestare dignetur in N. P. et F. et Es. S. Amen.

## II

valde mane una sabbatorum, veniunt ad monumentum, orto jam sole. (Marc. 16, 2.)

Sosegu andian, eta descuido gueiagorequin lo cegon Profeta Jonas Unciaren barren barrenean, dembora beraen Unciontaco Capitan, Mariñel, eta Pasajero guiac aurquicen cirelaic munduontan pensa aldaizquen trabajuiz andienetan: instante batetic bercera Yxasoaren boladac goiticen cituen ceruco odeietaraño, bereala sarcencituen Yxasoaren ondarreraño. Tempestadec eta tormentec arrallacen cuten Uncia, Aice Gaisstoec austen citioten Unciaren belac, eta cuerda guiac; aguercen ciceizquioten goibel belz bazuc oiñazturez, eta ortoxez beteric guiac arricen eta loxacen zustela; Yxasoaren orroec lazcacen cituela; Urec batac berceas golpe emanez, abuñac ceruraño goiticen cirela, eta andic berceco Yxasoain ondarreco areac icusi artean urac particen cirela: Lancetriste, eta lastimosogontan, Trabajueven gucien erdian lo cegon Profeta Jonas sosegu eta descuido andiarequin; Baiña Mariñel eta Pasajero guiac zabilzan afluxuric eta arrituric uncico carga guiac ixasora botacen, mercaduria guiac, eta orañic bear zuzten alimentuac ere, beren biciac libraceagatic; ou eguiten zutela negarrez Cerura misericordiaren eta socorruaren billa. Yratzarri cen badanoizbaitere Profeta Jonas, eta icusi zuelaic tempestade bat ain itxusia eta loxagarria, Mariñelac eta pasajeroac erdi ilic, beren biciet esperanzaric batrere etzutela; Habiatusen oiuz Profeta Jonas gucien alcinean erraten zuela; ura cela medio moguitu cela tempestade-gura, eta nai bazuzten beren biciac libratu bota cezatela Yxasora, berce gaiñeracoan guiac galduac cirela: per me orta est haec tempestas mittitte me in mare, neregatic sortu da tempestadegau nai baucie libratu bota nazacie Yxasora. Habiatus ciren bada tratacen cer eguien zuten eta azqueneco determinatzuten Yxasora botacea, eta botatu zuten bezain laster aguertucen Balebat agoa idquiric eta sartuzuen oso osoa bere tripan bereala sosegatucen Yxasoa, eta serenatu cen Cerua andic irugarren egunean eillegatu ciren Niniveco Portura, eta arara aguertu cen Baleare Profeta Jonas bere tripan zuela eta an bota zuen aicealdi batez idorrera Profeta Jonas biciric iru egunez bere tripan iduqui ondoan: Orai bada, considerazagun ongi, eta atencioarequin cer gustoa eta consolua artu zuten Mariñelevet, eta Pasajeroevet beren buruac icusteaz osoic eta sanoic, peligro evetaic eta tempestade evetaic campoan, eta icusi zutelaic, Profeta Jonas biciric atracela Balean tripatic iru egunez orciric egon ondoan? Nornaieczautucodu bada nere gende onac, Pasajegau, eta lancegau dela figurabat, ero semejanza bat ongi propioa egungo misterio andi eta sandugonena: Jesuchristo gure Redentorea guizon egun baño len, munduontara etorri baño len, iduri zuen lo cegola; eta dembora beraen mundugau gucia cegon tormentaz, eta tempestadez beteric gure lemissico Aiten, Adanen eta Evaren becatua cela medioz: tentacio gaisstoen aiceac cebilzan furia eta errabia andiarequin, trabajuen Yxasoa cegon nasiric eta coleraturic pena, eta lastima guiac batean ematencituela; etce iñorere segur cegonic azquenean Patriarca sanduec, Profetec, eta Jaungoicoaren aisquidec senticen zuten, eta sufriren zuten trabajugau, eta desgraciagau,

cergatic evec ilcearequin even arimac erausten ciren ero erorcen ciren infernuco garcel ilunetara, Abranen calabozora Yratzarricen bada noizbaitere Jesuchristo gure Redentoreoa etorricen erran nai dut, mundura guizon eguinik, gure erredimicera, tempestade evetaic, eta tormenta evetaic libraceria, Luciferren azpitik atracera. Habiatusen bada disputacen Escriba eta fariseoequin, eta pendencia cembait izan ondoan condenatu zuten, botatu zuten bere trabaju eta pasione sanduco Yxasora, emen izan zuen eriocearen Baleac, iru egunez bere tripan iduquicenzuela.

Ycusagun bada orai cer eguin zuen Jesuchristo gure redentoreac ilic egon cen iru egunevetan. Fede sanduac eracustendigu, eta christau guciecal confesacen dugu Jesuchristo erauchi cela infernietara an ceuden arima sanduen libraceria: lau infernu badira, lemissicoa, condenatuena barren barrenean dagona, bigarrena purgatorioa gracian ilcen diren arimen lecua, baina orañic becatuen manchetaic ongi garbitu eztirena. Yrugarrena limboa aur bataiatu gabe ilcendiren quartoa; laugarrena Abranen calabozoa, arima justoen garcela, lau lecubetan bada manacenzuen Luciferrec autoridade, eta dominio andiarequin, berac iduquicen ciuela calabozo evetako guilzac, aliqueta jesuchristo erauxi artean. Bazuen bada aicea Luciferrec, Profeta sanduec erranic, Maria santissimaren semebatec, Jesuchristo deicencioten Jaungoiko eta guizon batec il bear zuela mundo gende gucien favoretan, eta erremediotan, onec erauchi bear zuela infernuco atarien idiquicera, eta Demoniari autoridadea eta potestadea equencera: bacequien eta etzuen sinestacen, baiña beti cegon duda eta beldur andiarequin: Lucifer bere beldurraquin cegon atendicen eta barrendacen ia Jesuchristo eraustencen, eta icusi zuelaic Jesuchristoren arima gorputza sepulturan utciric divinidadea bietan aurquicencia, majestate eta autoridade andiarequin erausten cela infernietara, itzulicen guibela lasterca oiuz bere lagunei erratenciotela Demonioac arma zaizte, ersquigun atariac ongi, guc sinestatu nai ezquinduena eguietan atrauc, guc beldurra guinduena elduduc, gueren buruoc, eta condenatuoc berere segurazquigun: sartucen bada Jesuchristo Abranen calabozoa, arima justoen lecuan gloriaz beteric, arguicen ciuela calabozo ilunura, ainberce urteaietan deus ere icusten etzutela deseoa andiarequin esperacen zutela mundu guciaren redentoreoa: Considerazagun bada orai piscabat, nere Gende onac, cembalet consolu, cembalet bozcario, eta cembalet gusto artu zuten arima justo evec Jesuchristoren visita gonequin; cein itz berachac erraten bidecition Sn. Josei, Sn. Juan Bautistai, Dabidei, Abranei, Job sanduari, eta gure lemissico Aitei, Adanei eta Evay, erratenciotela tristeac eta miserableac consola zaizte, beidazacie cembalet trabajutara botatu ninduen zuen becatuac: Dembora berean Jesuchristoren visitagonec infernietara Demonioendaco, eta condenatuendaco izancen tormentu gueiagotako errabia, eta desesperacio gueiagotako, Demonioei cergatic equencencioten autoridade eta dominio gucia condenatuei cergatic etcitceioten gueldicen infernutic atraceco esperanzaric batzere. Yrugarren egunean bada juntatucen Jesuchristoren arima bere gorputzarequiñ, eta atracen biciric Profeta Jonas Balearen tripatic, viztucen Jesuchristo, errezzucitatucen ez secula berriz ilceco: resurrexit sicut dixit: Bada jesuchristoc berac erranic ceucan Sn. Mateoin amabigarren eta berrogueigarren capituloan; ala nola Jonas egon baicen iru egunez eta iru gauez Balearen tripan, ala arrec ere egon bear zuela iru egunez eta iru gauez luraren tripan: sicut enim fuit Jonas in ventre ceti tribus diebus, et tribus noctibus: sic erit filius hominis in corde terre tribus diebus et tribus noctibus.

Eta il bearzun bezper arraxeak errancioten bere discipuloerri amorio eta sentimentura andiarequin nola guciec desamparatuco zuten ilceracoan; Baiña erresucitatu ondoan guciei esperacen ciuela Galilean an icusico zutela guciec: Postquam autem resurrexero precedam vos in Galileam: Egun goicean bada, argui astean, Yruzquia atra bezain laster balsamoac

erosiric iru Mariac, negarez lastimaturic, guciei biozac particen, eta urcen citiotela jesuchristoren gorpuceco llaguen untacera: eillegatucirelaic supultura, eta icusi zutelaic etzegola an Jesuchristoren gorputza, orduan ciren bada andre even negarrac, eta lastimac, ustez norbaitec ebasi cioten, baiña particulazqui Maria Magdalenarenac, erratezuela; O nere Jesus, o Nere Maistru maitea, cer eguinendut bada nic zu gabe, nora joainaz zure bila cerc eremanacinindue ni bart zure oiñetaic, ojala emen egon baniz zure guardian, etcinduzcat utcico ebastera, O nere Jesus dulcea norat ereman zaituzte; ¿cer eztire contentatu zu ilceaz eta acabaceaz zure exaiac? orañic il ondoan ere eztizute descansuic emanai? itz evec erraten aicelaic beidacezuen maiz sepulturara, ustez beguiac engañacen ciceizquion, eta ontan cegolaic icusituen iarrcen il obiain ezquer escuñetaic bi ainguiru zuriz beztituric, eta batec errancion bereala, andrea certaco negar eguintenduzu, consolazaite, alegra zaite, eztuzu cer loxatu, badaquit bilacenduzula Jesuchristo nazareno crucificatua, erresucitatuda ia, ezta emen, icusazu orci zuten lecuau; zoaci, errantzozute apostoluer, particularqui Sn. Pedrori, alegradaitecila eta consola daitecila nola Jesuchristo erresucitatuden, eta Galilean esperacentuela. Au dabada eguna, nere Gende onac, Jesuchristoc guciei erratendiguna alegragaitecila, consola gaitecila, arimaco eta gorpuceco bozcarioequin celebrazagula egun andigau; haec est dies quam fecit Dominus exultemus, et letemur in ea, cein izain dabada cristaua egun alegracen eta consolacen eztena, berebici gucion graciac eta esquerrac ematentiola bere redentoreari egun erreccibitu duen favoreaz? egun alegracen dire apostoluac, eta Mariac, ainguirua eta guizonac, justoac eta becataric, Cerua eta lurra eta azquenean infernua berare, cergicatic egun libra centuen bere prisioneroac, aita sanduen arimac atariac idiquicentuela cerura iiateco, etzuen bada Jesuchristoc iñorere beressi favoregontaic guciei ceucan amorioaingatic il cen, eta resucitatucom ainberce pobrengatic, nola abrasengatic, chiquiengatic, nola andiengatic, eta ainberce becatariengatic, nola justoengatic; Yñorquere eztu cer achuquiaric, eta escusaric alegatu ezparinbadu faboregontaic provechuric atracen, berea da culpa, eta ez bercena, bera berestenda, eta apartacenda favoregontaic; Egun goicean, argi asiordudo len lemessicoa balsamoac erosiricoan cen Maria sepulturara Jesuchristoren bila, eta ala lemessicoa izancen logratu zuena Jesuchristo erresucitaturic gloriaz beteric icustea; sepulturain ondoan belaurico iarriric negarrez aicen oracio eguiten; eta aguertu ciceion Jesuchristo, erratenciola, Maria certaco negar eguiten duzu? bereala ezautuzuen Maria Madalenac eta errespondatucion nere Maistru maitea, eta berce itcic errateco biocic ez izanez eurtiqui ciceion lurrera oiñiac adoratu bearrez. Berriz errancion Jesuchristoc, Maria uznazazu, prisaca nago, orañic eznaiz iian Cerura nere Aitarengana, an adoratuco nauzu espaciorequin, orai zoaci zu berce bi Marietara, eta nere Apostoluetara errantzozute nola icusi nauzun erresucitaturic, baiña particularqui erranzozu Pedrori: ¡O cer pasajeau au! ¡O cer itzac evec! nere Gende onac, missterio aniz dutenac. Maria Madalena egun ain goizter moguiceac Jesuchristoren bila; erran naidigu abada, guc ere nai barinbadugu, eta deseacen barin badugu icustea Jesuchristo erresucitaturic, goizic moguitu beardugula goizic eman beartiogula graciac egunero eguitentigun beneficioez, eta favorez; au eguitenzuen bada Dabidec Jesuchristo erresucitatu baiño len, eta au egui bear dugu christau guciec erresucitatu ondoan; bere egun eta emezorcigarren salmoan erratenduen bezala, prevenerunt oculi mei ad tediluculo, ut meditarer eloquia tua: Jauna nere beguiac iratzarric daude, eta lencen zaizquio Yruzquiai zure alabacera, eta graciac ematera: Jaungoicoac legueac ezarri citiolaric guizonari, deusere etcion ain erchiqui, escatu, nolabaita Jaungoicoaren escuetaic erreccibicen zituen favoren, eta beneficioen agradecimentua, eta correspondencia: ala dio Sn. Juan Crisostomoc bozgarren salmoan: oportet enim ad gratias tibi agendas solem prevenire. Guizona graciac ematera Jaungoicoari lendu bearzaiola Yruzquiai, cergicatic Jaungoicoac beti ematen digun esperacen dugun baño gueago; Maria Madalenac esperacen zuen Jesuchristo llagaz beteric aurquituco zuela,

bada llaga even untaceco erosi cituen balsamoac, Baiña icusi zuen gloriaz ederturic; Job sanduac etcion berce gauzaic escacen Jaungoicoari, baissic justo justoan iceteco, eta bezticeco bearzuena munduontan, eta Jaungoicoac errancion, Job guti escacenduc, i izainaiz Yruzquia atracenden alderdico guizonic abraxena, eta (...) goicoa (...) eguinic logra besoetan iduquicea, eta besarca ematea: zaqueo guizon chiquitoac naizuen icusi Jesuchristo tropa andibaten artean (Jerichoco) bidean, bere chiquitasunez, eta obequi icusteagatic iiacen arisbaten gaiñera, eta Jesuchristo ellegatucelaic pare parera beidatucion, eta erracion, Zaqueo erauchadi laster aritz ortaic, gaur ire echera noaiiec ostañacera: icusacie bada orai nola cumplicentuen gure deseoa, baldin ongi deseacen bada.

Jesuchristoren erresurreccioac eracustendigu egun, guc ere beardugula erresucitatu, Baiña lenic escacendigu gueren arimen erresurreccioa, Baldin barinbadaude ilic becatu mortalain medioz, biztuzquigula confesio onbatequin, berce gaiñeracoan gaizqui alegratuco, eta consoltuco direla. Etcen bada contentatu Jesuchristo, Ainguiruac errateaz Maria Madalenari eremancezala noticia andigura Apostolueri; berac erraten dio bigarren aldian; Maria zoaci nere dicipuloetara, eta errantzozute nola icusi nauzun erresucitaturic, baiña particularqui errantzozu Pedrori. Pedrori Jauna? orañic eztu-iru egun erratenzuela juramentuquin, deabruec ereman cezatela baldin ezaucen bazinduza, ¿cer ain laster eman naibioze consolugau? orañic fresco dago becatua, utzazu guti bat negar eguitera: ez errantzozu. ¡O cer itzar evec, nere Gende onac, baldin ongi comprendi baguindeiza! Erran naidigu bada, den becatari andiena izanic ere, baldin eguiten badu penitencia, escacen badu misericordia, eta barcamendua, prest dagola barcacera eguitentioten ofensac, eta bereala acencendela; Pedro cegon iru egunaietan quarto batean bacarric negarrez, escacen zuela penitencia eta misericordia bere becatu eguinaz, eta argatic dauca Jesuchristoc ainberce cuidado eremandezoten noticiagau, Ontan eracusten digu bada guriere, nola beatioguten guc ere barcatu gueren proximo lagunei eguiten diguten agravioac, eta ofensac, estalcentiogutela caridadea, eta sufrientiogutela pacienciarequin beren faltac, eta flaquezac; bai etare nola beardiogun escatu Jaungoicoari penitencia eta misericordia guerec eguitentiogunez. Maria Madalena bacarric gueldicea belaurico iarric Jesuchristoren sepulturain ondon, erratenzuela etzela andic moguituco Jesuchristo bere Maistru maitea icusi artean, erran naidu, perseverancia. Baldin erdes ohi barinbadugu Jesuchristoren gracia Bazcoa (...).

Persevera zugula Maria madalenac bezala munduontan gracian, eta guero espaciorequin adoratuco dugula secula seculacoz ceruan. Quam mihi et vobis prestare dignetur in N. P. e tF. et Es. S. Amen.

### III

His fieri incipientibus, respicite et levate capita vestra. Luc. 21.

Vi vide dire solamente cerureco bata inocenciecoa, vercea penitenciecoa. Ynocencieco videa, da gucz suavea eta alegrea vide ontas doacinec, galdu gabe Bautismo sanduko gracie eta becatuen manchaic den gutienic gabe, dificultadeic gabe edequiq arrapatceute ceruco atarie. Al contrario, penienciaco videagucz penosoa, gucia trabajua ta dificultadea vide ontaz doacinec ez dute berce guise ceruco Atarie edequico, baicic castigatuz, ta Mortificatuz veren pasioneta inclinacio gaisto gucie. Eta cein bidetaz guaci gu? guaci acaso inocencieco videaz? Badira acaso aniz gure ertean. Bautismo sanduko gracie conservatceutenac? Ah! zaumentue izan guiñuen bezain laster asiguiñen Jangoicoa ofenditcen eta gueiago dena, eztugu berceic iten baicic añaditu egunetic egunera ofensac. Ezta acaso Jangoicoan legueco edo Elizaco madamentuic, quebrantatu eztugunic. Cer bide

guelditcen zaigu bada cerureco? Ez berceic, baicic penitenciecoa. Ezta erremedio(i)c, edo penitencie in beagu munduontan edo padecitu ta penatu eternidade batez vercean. Ontan ezta dudaic Penitencie consideratu daique, Sacramentue bezala, eta Virtutea vezala.

Penitencie Sacramentue bezala ezta berceic, baicic confesio dolorosoat gueren becatuac sacerdotean absolucion aqui batean au da comunqui deitcendugune confesioa. Penitencie virtutea bezala, da biotcen dolore sentimentuet, ceñen medioz aborrecitcen du guizonac becatue, cergatic den Jaungoicoan ofensa, permititcen diolaic satisfacio matea vere vicimoduen emiendaqui. Ain inseparable ac dire vi penitencio bata bercean gandic, eci ezdiroque aprovechatu becatariei sacramentuec, vertuteic gabe, eta ain guti vertuteac Sacramentuic gabe. Orgatic naidiciet gaur manifestatu penitencien necesidadea, orretaco consideracen gaitu Eliza Ama sanduec, Avenduco dembora sandu ontan, paratcen tuelaic gure veguen visten azquen juicio egunean ailciñen izain diren señale terribleaiec.

Penitencie necesarioa da Jangoico ofendituen aplacatceco. Ontaco iaquin beaugu becatue dela injuria bat, despreciatcen duena Jangoicoan Magestadea. Cergatic dauque bai Jangoicoac debecatuic becatue, Vere autoridade guciaiqui, arren madamentuen contra obratea, claro dago dela desprecio andibat veroren Magestadeai iten zaiona, eta posible valitz nailuque becatariec, becatueiten duelaic, eztaien icen Jangoicoic: argatic nailuque eztezan zautu arren becatue, edo eztezan aborrecitu, edo eztezan izan autoridadeic castigateco: ezpalu Jangoicoac zautcen becatue, ez litceque infinitamente sabioa, ezpalu aborreciten, ez litceque izein infini.te. Justoa, eta ezpalezoque castigatu ez litceque izein infini.t poderosoa. Orgatic indignacioz beteic esclamatcen du Sn. bernardoc. Crudelis plana et omnino execranda malitia, que dei sapientiam, iustitiam et potentiam perire desiderat.

O malicia gurziz cruenta becatuena, deseiatcen baitu acabatcea Jangoicoan Jaquiduria, justicia, ta Omnipotencia.

Cusic becatuen cruidadea, iaquin beaugu naiz ez posible izaniccau (?) criatuac bere satisfacio mandezan amberceco doloreaz (?). Orrequi guciaiqui Jangoico ofendituec eztu nai galdu vere drechotic, antes bien naidu satisfacio mandezagun azqueneco munduraño. Baño cer satisfacio mandiogu guc ez verceic, baicic penitencie eguiazcoa. Eguia da, gure penitencie den andiena izanic ere, consideratcen bada bera, vacarric, eztela capaz satisfacio mateco Jangoicoai intiogun ofensaz, justicie rigorosoatec escatcen duen bezala, baño capaz izain de juntatcen balin baugu JesuChristo gure Erredentorean pasio sanduco meresimentuequin batean; modu ontan bai mandezoquegu Satisfacio abundantea. Orgatic ofrecitcen diogulaic Jangoicoai gueren becatuen satisfaciota,edocein obraon, edo trabaju,edocein penitencie, beagu in JesuChristoren pasio sanduco meresimentuequi batean. Au gabe, gure obraon guciac, untce bezala izain dire. Emacie cer inderra duen untcec pareta edo arbole baten arrimoan, dembora labur ioten da goitico esquiñeraño; baño quenzocie pareta edo arbolea, ta quisicocie ceiñ humil guelditcen den. Guise berean gure obra onac, JesuChristoren pasio sanduco meresimentuequin batean, inder aundie dute, baño aiec gabe aguitz apal guelditcen dire. Penitencie necesarioa da, becatuen manchau borratceco, eta quentceco becatuen ondoren guelditcen diren resulec edo inclinacio gaistoac: barcatuagatic Jangoicoac becatue vere misericordie infinitue dela medio, eztu choill barcatcen becatuen gatic mereci gui(nu)en pena Dominus transtulit pecatum tuum erran cion Natan Profetac David Erregueay. Jaungoicoac barcatu dizu becatue, baño orrequi guciaiqui ill veardu zure Semea becatuen pena edo castiguraco: veruntamen, filius qui natus est tibi, morte morietur. Becatuen ondoan guelditcen dire resulec edo inclinacio gaistoac, eta aien quentceco preciso da penitencie continoat. Orgatic engañatcen dire anitz becatari,

pensatceutelaic confesoreai erranez gueroztiq veren becatuac, ya eztela aietaz quidadoic izan bear, seculo iñ ezpalire baño gueagoic. O cein diferentequi pensadutean penitente eguiazcoac dembora gucietan. Adan gure lenbicico aitec aitu zuen Jangoicoan veran agotic, barcatcen ziola inzion ofensa, orrequi guciaiqui, bedratci sigloco penitencie continoatequi, procuretu zuen aplacatcea Jangoicoaren suplica. Bazaquien David Erregueac, Profeta sanduec erranic, barcatu zitiola Jaungoicoac, incituen becatuac, orrequi guciaiqui, oguien lequen iaten zuen suco autsa, ta negarrez beguiec beteic escatcen cion Jangoicoai: iago ta iago guarvi zezala vere becatuen manchetaic. Amplius lavame domine ab iniuitate mea, et a pecato meo munda me.

#### IV

Ceci vident, claudi ambulant, surdi audiunt. etc. Math. C. 11, 5

Esplicatu ondoan egun zorci penitencien necesidadea, iaquin viaugu penitencie eguiiezcoaten señale principalenetaic bat dela, vici moduen mudanza. Au entendatcera maten digu egun Evangelio sanduec, erraten diguleic: Ytsuec custeutela, sorrac aitceutela, mainguiec badabilcela, ta illec resucitatcendirela: aude Dionisio Cartujacoac erraten digun vezala: Ytsuec custeute, Jangoicoan graciens arguitasune dela mediante, guizonac zautcentutelaic veren utsiñoc: Sorrac aitceute, orai artio casoic ez mana egondirenac, aitceutelaic Jangoicoan voza: mainguiec badaviltza perezoso ta descuidatuic astendirelaco obra onac iten: mortui resurgunt, illec resucitatcen dire, becatariec penitencie itautelaic. Au da mudanza penitencie eguiazcoatec escatcen duena.

(Amaigabea)